

B euskararen BERRIPAPERA

Euskara sustatzeko hitzarmenak herrietan

Azken urteotan garrantzitsua izan da oso euskararen normalizaziorako irakaskuntzak, helduen euskalduntze eta alfabetatzeak, komunikabideek, administrazioak, elkarteek eta abarrek egindako bidea.

Elkarlana

Hori horrela bada ere, euskararen erabilera areagotzeko ezinbesteko da administrazioaren lanaz gain, gizartearen partehartzea: elkarlana da gako hortaz, gero eta jende gehiagok egingo badu euskaraz.


Elkarlan hori bideratzeko, gune aproposa da udala, herritarrengandik hurbil-hurbil dagoen administrazioa denez. Horren jakitun, eta euskararen erabilera hainbat esparrutan zabaltzeari begira, era askotako ekintzak eta ekimenak bideratzen dira udalen ardurapean, herritarren laguntzaz eta lankidetzaz. Hor ditugu, besteak beste, monitorea euskaldunei euskaraz lan egiteko oinarrizko prestakuntza emateko egitarauak; kirol entrenamenduetan eta bestelako jardueretan euskarazko materiala sortzekoak; merkataritza arloan euskararen erabilera bultzatzekoak, etab.

Partehartze borondatezkoa eta mailakatua

Aipagarria da, benetan, herritarren partehartze hori boronda-

tezkoa eta mailakatua dela, hau da, inork behartu gabekoa eta bakoitzaren neurriira egokitua. Horren lekuko dugu Leioako Udalak herriko 36 elkarterekin izenpetu berri duen euskararen aldeko hitzarmena, eskola-orduz kanpoko jardueretan euskararen erabilera indartzeko eta haur eta gazteei zuzendutako propaganda

koak aurrera ateratzeko, hainbat zerbitzu eskaintzen ditu udalak: ikastaroak, itzulpenak. Egitasmo horren antzekoak dira Elgoibarren, Oñatin, Arrasaten, Bergaran, Urretxun eta Zumarragan izenpetu diren hitzarmenak. Egitasmoa gauzatzeko, Udalak, gehientsuenetan, hitzarmena koordinatzen du bertako



✕ *Leioako 36 elkarteek sinatu dute euskararen aldeko hitzarmena*

eta ahozko zein idatzizko harremanak euskaraz garatzeko. Udalak, kasu horretan, hiru motatako hitzarmenak izenpetu ditu elkarteekin, bakoitzaren autokonpromiso maila kontuan, antolatzen dituzten jarduerak euskalduntzeko. Hitzarmen horietan finkatzen diren gutxiene-

Euskara Zerbitzuaren bitartez eta elkarteek ere arduradun bana izendatzen dute gai horretarako.

Merkataritza egitasmoa

Bestalde eta euskararen erabilera alor guztietara zabaltzeko,

SUMARIOA

- 1 Euskara sustatzeko hitzarmenak herrietan
- 2 Laburrak
Augustin Zubikarai Bedialauneta
Kontuan hartzeko
- 3 Euskadi Literatur Sariak Deialdia
Udan... lagun berri bat
- 4 Izen-abizenez
Larramendi multimedia programa
Lehen begiratuan

hitzarmenak izenpetu dira herri askotan merkataritza harremanetan ere euskararen erabilera bultzatzeko. Beasain, Gernika, Ondarroa, Lasarte-Oria eta Tolosa dira, besteak beste, merkataritza egitasmoak martxan dituzten herriak. Gehiengotan udalak diruz lagundu egiten du egitasmoa, bai kartelak, iragarkiak edo informazio idatzia euskaraz emateko, bai eta dendariak euskara ikastaroetara joateko ere. Hitzarmena izenpetzen duten komertzioek konpromisoa hartzen dute euskara erabiltzeko, ahozko harremanetan zein idatzitakoetan.

Administrazioak esperientzia horien inguruan aldeko balorazioa du; izan ere, herritarren ohiko jardunean euskarari tokia egitea eta, gainera, herritarren borondatez izatea onuragarria da guztiz euskararen erabilera soziala normalizatzeko.

LABURRAK

Euskara ikasteko *Irakaslea I*
CD-ROMari saria EXPOLINGUAN

EXPOLINGUA, hizkuntza, kultura eta komunikazioari buruzko Azokak erakusketako lehen saria eman dio Bilboko KB Taldeak egindako *Irakaslea I* izeneko CD-ROM formatuko euskara ikasteko metodo elkarreragileari. Azokako irakaskuntzarako produktu onenaren saria jasotzeak Europa mailako lehiaketan sartzea ekarriko dio *Irakaslea I* CD-ROMari. Innovalingua izeneko lehiaketak Europako irakaskuntzarako metodorik onena saritu nahi du eta horretarako lehiari sartuko dira Madrilera Expolingua azokan, eta Paris, Erroma eta Lisboako azoketan saritutako produktuak. 1997. urtea bukatu baino lehen *Europa Saria* emango zaio horien artean aukeraturiko produktu onenari. Produktu irabazlea Eusko Jaurlaritzako eta Nafarroako Gobernuaren standean egon da ikusgai, euskararen inguruko beste hainbat produkturekin batera.

Euskalduntze eta
Alfabetatzerako Diploma

Seigarren urtez jarraian antolatuta da Euskal Herriko Unibertsitatean, Hezkuntzaren Teoria eta Historia Sailaren gidaritzapean eta Euskal Kulturaren Batzarrak bultzatuta. Euskaltegi nahiz ikastetxeetako irakasleei zuzenduta dago; baita ikaskuntza-irakaskuntzaren prozesua gertutik ezagutu nahi duten profesionaleri ere. Euskararen irakaskuntza gure hizkuntzaren berreskurapen sozialaren testuinguruan txertatzea eta kokatzea du helburua. Horrekin batera, irakaslearen ikuspegi ezberdinak aurkeztuz, eztabaidak bultzatuz eta norberaren esperientziak hausnartuz, hezkuntzako egoera aldakorrei egoki erantzuteko irakaslearen irizpide kritiko eta sortzailea landu nahi du. Parte hartu nahi dutenentzat aurrematrikulazioa egiteko epea ekainaren 9tik 27ra izango da eta matrikula egiteko irailaren 1etik 19ra. Ikastaroa urriaren 3an hasiko da. Informazio gehiago, tel. 943-310600 (304 luzapena).

Augustin
Zubikarai
Bedialauneta

Augustin Zubikarai Ondarroan jaio zen 1914an.

Saturraran eta Gasteizko apaizgaitegietan egin zituen ikasketak eta oso gazterik, hamasei urte zituela, hasi zen euskal aldizkarietan kolaboratzen. Gerra garaian sorturiko Eguna egunkariko erredakzio-buru izendatu zuten 1937an eta geroztik aldizkari askotan hartu du parte: Zeruko Argia, Karmel, Argia, Egan, etab. Espainiako Gerra Zibilean atxilo hartu zuten eta Zaragozako kazetari batez trukatu ondoren, Frantziara erbesteratu zen 1940 arte.

Euskerazaintza elkarteko lehendakaria

izan zen 1986tik 1991ra arte, eta elkarrekin argitaratzen duen izen bereko aldizkari zuzendari ere bada. Genero guztiak landu dituela esan badaiteke ere, nobelan nabarmenduta: *Piñouetako madalenak*, 1965; *Bale denborak*, 1978; *Anton Guzurretxe*, 1979; *Laiñoak Mundakan*, 1980; *Mon-Daka*, 1981; *Bizitzako urratsak*, 1981; *Barre eta irri*, 1988. Nobelok, tradizionalak egituraz eta xumeak estiloz, beti dute bizitasuna elkarriketetan eta pertsonaien taxuketan.

Lan bikainak egin ditu Ondarroako lexikoa, bereziki itsasokoa, aztertuz eta bilduz: *Boga eta Zixe*, 1976; *Itxas-aize*, 1989. Ondarroako Kultur Etxeko zuzendaria izan da. Lehenik euskaltzain urgazle eta 1993az gero ohorezko euskaltzain da. 1996an EIZIEK ohorezko kide egin zuen.

KONTUAN HARTZEKO

Arabaren euskaraz

Arabak ere badu Euskal Herriko beste eskualdeek bezalaxe euskara eta ikastolen festa. Aurtengoa ekainaren 15ean egingo da Errioxako Oionen, San Bizente Ikastolaren eskutik eta *Gorabidean* lematzat hartuta. Jai honen inguruan ekitaldi ugari burutuko dira: hitzaldiak, kontzertuak, etab. Jaiaren kanta ofiziala Oiongo *The Starlites* taldeak egin du, Jon Maia bertsolariaren letrarekin.

Udako Euskal Unibertsitatea

Udako Euskal Unibertsitateak antolatuta, Baionako eta Iruñeko XXV. Udako Ikastaroak egingo dira aurtengoan. Bi hirietan eta uztailean emango diren 45 ikastaroetan 40 sailtetako gaiak aztertuko dira. Besteak beste, literatur itzulpena, administrazio hizkera, hizkuntzalaritza eta glotodidaktikaren inguruko gaiak jorratuko dira uztailearen 7tik 26ra egingo diren ikastaroetan.

★ **Ahoz aho, belaunez belaun ... hil honetan non?**

Ekainaren 2tik 8ra Gasteizko Florida Kultur Etxean
Ekainaren 2tik 8ra Gasteizko Iparralde Gizarte Etxean
Ekainaren 13tik 22ra Uztaritzen

Euskadi Literatur Sariak

Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak Euskadi Literatur sariak eguneratzeko bidean aldaketa batzuk egin ditu aurtengoan. Orain arte ez bezala, lehendik argitaratutako obrak, aurreko urtekoak zehazki, sarituko dira. Beste alde batetik, generoen arteko bereizketa bertan behera utziko da eta sari nagusiak euskarazko bat eta gaztelaniazko bat izango dira. Beste bi modalitate berezi ere egongo dira: bata, haur eta gazteentzako euskarazko literatura saritzeko eta, bestea, euskarara egindako itzulpen literarioak saritzeko. Horrez gain, beste dirulaguntza batzuk izango dira, euskarazko modalitateetan saritutako lanak kanpoan zabaltzeko. Bestalde, Euskadi Sarietarako

proposamenak euskal kulturarekin zerikusia duen edozein kultur elkartek nahiz epaimahaikidek egin ahal izango ditu, proposatutako literatur lanaren balioa azaltzen duen txostena bidaliz. Sarietan banatuko den dirulaguntza zergetatik garbi izango da. Sari orokorreko irabazleek 2.000.000 pezeta jasoko dituzte eta euskarazko sariaren kasuan, diru kopuru horri beste milioi bat erantsi beharko zaio kanpoko zabalkunderako. Haur eta Gazte Literatur Sariaren irabazleak 1.500.000 pezeta jasoko du argitaratutako obrarengatik eta beste 600.000 pezeta kanpoan zabaltzeko dirulaguntza bezala. Azkenik, itzulpen literarioaren saridunak 1.500.000 pezeta eramango ditu.

DEIALDIA

Toki-entitateetarako dirulaguntzak

Kalean dira jadanik euskararen erabilera areagotzeko egitasmoak garatzearren Euskal Autonomia Erkidegoko toki-entitateei dirulaguntzak emateko deialdia. Guztira 47.000.000 pezeta banatuko dira, horietatik 31.500.000 pezeta euskara normalizatzeko teknikaririk ez duten toki-entitateen artean, eta 15.500.000 pezeta teknikaria dutenen artean. Deialdi honen bitartez, 1997an toki-entitateek garatuko dituzten egitasmoak diruz lagundu nahi dira, besteak beste, familiaren bidez euskararen jarraipena bermatzeko egitasmoetan txertaturik eskolaz kanpo antolatzen diren ekintzak, gazteriarren astialdian eta kirolgintzan edo merkataritzan euskararen erabilera bultzatzeko egitasmoak, eta iharduera hauek garatzeko euskara normalizatzeko teknikarien kontratazioa. Deialdia maiatzaren 27ko EHAA argitaratu da eta eskabideak aurkezteko epea ekainaren 28an amaitzen da.




UDAN...
lagun berri bat



Udan... lagun berri bat

Gasteiz euskalduntzeko jardunean ahaleginetan diharduen GEU Gasteiz euskara elkarte asmo polit eta onuragarri batekin datorkigu oraingoan: izenburuak dioen bezala, uztailean eta abuztuan, euskara bide dela, lagun berri bat egiteko proposamena egiten digu. Lehen hezkuntzako 4, 5, eta 6. mailetako neska-mutilei zuzenduta dago; herri euskaldun bateko familia batean astebeteko egonaldia egin eta euskara hobetzeko aukera eskaintzen zaie gazte gasteiztarrei, eta Gasteiz ezagutzeko aukera ematen zaie herri euskaldunetako

gaztetxoei. Bakoitzak duena ematea da trukaketa honetan eskaini eta eskatzen dena. Gasteizko familiek hiriko giroa opor garaian eskaini ahal izango diete herrietako partehartzaileei. Herrietakoek, aldis, herri horretako eta familiako giro euskalduna eskainiko diote hiritarrari. Hiru eta hemezortzi urte bitarteko 18.000 ikasle inguru dira Gasteizen euskaraz ikasteko bidea aukeratu dutenak; egokiera ederra, beraz, oraingo hau ikasturtean zehar ikasitakoari udan ere jarraipena emateko.



Juan Kruz Igerabide Sarasola

Juan Kruz Igerabide idazleak bederatzi urtetik gorako irakurleentzako liburu berri bi argitaratu ditu Edebe-Giltza argitaletxearen eskutik: *Bota ura!* eta *Andretxo bizardunaren uhartea*. Lehena Edebe sariko finalista izan da Estatu osoko lanekin lehian. Euskaraz ezezik, katalanez eta gaztelaniaz ere argitara eman da. Oparoa da Igerabideren orain arteko uzta: *Bizitzarekin solasean* (1989), *Begi-niniaren poemak*

(1992), *Txokolatea basoan* (1993) eta *Sarean leiho* (1994) dira bere lanetako batzuk. 1984an, *Notre-Dameko oihartzunak* lanarekin R.M. Azkue saria irabazi zuen eta hamar urte geroago *Sarean leiho* lanak Kritika saria eskuratzeko balio izan zion. Juan Kruz Adunan (Gipuzkoa) jaio zen 1956an eta Euskal Filologian doktore da. Egun, Donostiako Erizaintza Eskolan dihardu euskarako klaseak ematen.

Mariano Izeta Elizalde

Argitaratu berria du Mariano Izetak *Baztango Hiztegia* lana. Bertan, Baztango mintzaira ezezik, bailara horretan erabiltzen diren esaera zahar eta errefracuak ere jaso ditu. *Baztango Hiztegi Tipia* eta *Baztango erranairuak* izeneko lanak argitaratuak ditu aipatu berri duguna baino lehenago. Bizitza osoan bildutako 2.700 hitzek osatzen dute azken Hiztegia; euskararen aldeko bizitza osoko lanaren fruitua, egilearen esanetan. Mariano Izeta Elizondon jaio zen 1915eko uztailean.

Eskolako ikasketak amaitu ondoren, erlojugintzan aritu da 1984an erretiroa hartu zuen arte. Hainbat egunkaritan eman ditu argitara bere idazkiak, gehienak Baztani buruzkoak. Nobelagintzan ere aritua da Mariano Izeta: *Dirua galgarri* idatzi zuen 1962an eta *Nigarrez sortu nintzan* 1985ean. Bere lan oparoa eskertu nahian edo, Baztango Seme Kuttun izendatu berri du Udalak aho batez. Euskaltzaindiaren urgazle da 1961az geroztik.



Larramendi multimedia programa

Aurten Bai Fundazioak Larramendi multimedia programa aurkeztu berria du. Euskara irakasteko programazioak eta materialak kudeatzen ditu multimedia programa berri honek. Lehen mailatik hasi eta EGARA arteko programazioa eskaintzen du eta hainbat osagai biltzen ditu: helburuei loturiko trebetasunen garapena, hizkuntz egiturak, testu-motak, gaiak eta azpigaiak, ortografia, azentua, etab. Guztira, 1.200 ordu dira lau ikasgunetan banaturik, bakoitzak 10 orduko 30 unitate dituelarik. Programazio honi aldaketak eginez programazio berriak sor daitezke edota, nahi izanez gero, ezeretik abiatuta bestelako programazioak egin. Materialei dagokienean ere, irakasleak dauden daudenean erabil ditzake edo egokien jotzen duen eran aldaketak egin, edota berak sortutako ariketa berriak sartu.

Lehen begiratuan



Azken hogeituroteotako euskal kulturaren eta, bereziki, euskal liburugintzaren inguruko datu, iritzi eta gogoeta ugari bildu du Joan Mari Torrealdai euskal idazle eta kazetariak *Euskal kultura gaur. Liburuaren mundua* liburu mardulean. Euskalgintza Elkarlanean Fundazioaren eta Euskadiko Kutzaren laguntzaz argitaratu du Jakin argitaletxeak lan interesgarri hau.

Euskararen Berripapera zure etxean doan jaso edo ezagunen bati bidaltzea nahi baduzu, idatzi helbide honetara:

Hizkuntza Politikarako Sailordetza

Wellingtongo Dukea, 2
01010 Vitoria-Gasteiz (Araba)

Euskaraz Gaztelaniaz

Izen-deiturak:

Helbidea:

Herria:

Kodea:

Lurraldea:

Tel.: